

B

BARREN

# Txakur-sorgintzailea

Francisco Javier Beato

TOKIKOM

ELCOBAP - 914 - zenb. - XXI urtea - 2014-07-04





**Ainara Barreña**

TRANSLATION & LANGUAGE TEACHING

**MATRIKULA IREKIA**

📞 619 690 301



## Laster Zuekin!

2014-2015eko ikasturtearen hasiera irailak 15ean

- ▶ INGELESEKO eta ALEMANEKO ikastaroak
- ▶ CAMBRIDGEKO azterketak prestatzeko ikastaroak

Edozein adinetako ikasleentzat  
**Talde txikiak**  
 Hurbildu zaitetz eta galdetu!  
 San Bartolome 15 behea, Elgoibar



**www.traduccionesainara.com**

AINARA BARREÑA - TRANSLATION & LANGUAGE TEACHING - San Bartolome 15 Behea - 20670 Elgoibar (Gipuzkoa) - t 619 690 301 - ainara@traduccionesainara.com




**(B)** Diru (B)eltza,  
 etorkizun (B)eltza



## “A” gizartea lortzeko eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

 ZATOZ EKONOMIA  
 GARDENERA

www.ekonomiagardena.net

 **Gipuzkoa**  
 BERRIA



Iñigo Lariz

Aupa, Ainhoa, Aurreko asteburua Frantziako Alpeetan, Chamonixen, igaro dut. ISF-k (International Skyrunning Federation) antolatutako munduko txapelketaren kilometro bertikalean hartu dut parte. Ema-

tza ez da izan espero nuena, baina esperientzia izugarri izan da. Horregatik bakarrik merezi izan du hara joateko egin behar izan ditudan *etxeko lan* guztiak egitea. Kirol arloari begira ikaragarria izan da munduko txapelketa. Kilian Jornet kataluniarrak izugarritzko marka egin du berriz ere: Km Bertikala eta maratoia irabazita, munduko txapeldun bikoitza da. Probarik luzeenean, 80km-ko Ultra-traillean, Luis Alberto Hernando burgostarra izan da garailea, Mendaroko Kilimon Traila irabazi zuen gizona. Nesketan Laura Orgue kataluniarra, Elisa Desco eta Emilie Fosberg izan dira garaileak probarik laburrenetik luzeenera, hurrenez hurren. Lerro hauetan, baina, etxekoen lan bikaina gorapatu nahiko nuke. Mutiletan, Aritz Egea urretxuarrak izugarria egin du km bertikalean 8. eta maratoian 7. sailkatuta. Baina gure artean ditugun beste birena ere ez da gutxiagorako: Elgoibarren lan egiten duen Javi Dominguez gasteiztarrak 11. postua lortu zuen 80 kilometroko proban, eta Maite Maiora mendarorarrak podiuma zapaltzea lortu zuen 5. eginez zerurako biderik motzenez, eta 6. eginez, Filipidesen distantzian. Bi emaitza horiei esker 3. egin du puntukako sailkapenean.

**“Chamonixen, emaitza ikaragarriak izan dira, baina ez da halakoa izan eman dioten oihartzuna”**

Emaita ikaragarriak izan dira, baina ez da halakoa izan estatuko komunikabideek eman dioten oihartzuna. Geroz eta jende gehiagok jarraitzen duen kirola da hau, Euskal Herrian aspaldidanik aritu izan gara mendian gora eta behera, baina argi dago diruak mugiarazten dituela komunikabideak. Gutxi batzuek kasu egiten digute eta eskertzekoa da horiek emandako arreta. Baina oraindik ez dut ikusi mendi lasterketen albisterik kirol tarteari hasiera ematen.




Ainhoa Lendinez

Ostiralean oilo-larrua jarri zitzaidan, Iñi, kilometro bertikalaren helmuga Brevet-en izango zenutela jakin nuenean. 2012ko udan gain hartara igo nintzen, mendi zuria parez pare ikusteko. Korrika egiteak baino gehiago, inguruan izan duzuen paisiaz gozatzek eman dit inbidia asteburuan. Kirol emaitzen inguruan esan litekeen guztia esan duzu. Probak izan duen jarraipenari buruz, Nahaste Borraste ere zuei begira egon zela erantsi dezaket. Makina bat elgoibartarrek galdetu zidaten zuetaz zer edo zer nekien. Hedabideen inguruan, ba ote da orain arte esan ez dudunik?

**“Geure esku ere badago zenbait hedabide itzali eta beste batzuk irakurtzea”**

Euskal mendizale, korrikalari eta eskalatzaileek izugarriak egin behar dituzte, hedabide handien kirol tartetean lekua izateko. Euskal Herrian bada, ordea, mendiari arreta berezia ematen saiatzen den komunikabiderik; eta bat behintzat, gertu-gertutik ezagutzen dut. Urri dabil diruz, eta garaian garaiko politika astinduetatik ahal duen moduan osatzen beti. Irakurle leialak dauzka, baina gutxi, oso gutxi; euskara hutsean argitaratzen baita. Nahiago nuke nik ere futbolarien diru-kontratu neurrigabeen albisteen ordez, mendi inguruko albistez beteko balira kirol tartetean. Hala ere, gure esku ere badago neurri batean, zenbait hedabide itzali eta beste batzuk irakurtzea. Zaila da, baina, kontsekuentea izatea, eta hedabideetan ere dirua oinarri: aberatsa da gaztelania, eta pobrea euskara. Nondik begiratzen zaion. Nik neuk argi daukat; irakurleak irakurle, ezingo nuke mendiaz euskara ez den beste hizkuntza batean idatzi.






I. URTEURRENA

## KONTXI CELAYA ETXANIZ

2013ko ekainaren 28an hil zen, 87 urte zituela.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, uztailak 5, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.  
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILA Zaldua Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrugarte, Mike Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## Argitaratzailea:



## Laguntzaileak:



elgoibar  
biZi-biZiXa!



Gipuzkoako Foru Aldundia



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Okerrak zuzenduz eta esker onez

Kaleratu berri den *Felix Etxeberria, Parapango akuilua* liburuan, besteak beste, pilotaren atalean, akats larri bat azaltzen da, irakurlea harrituta utzi-ko zuena dagoeneko. Sorginen batek gu lotsagarriri utzi nahian-edo, zera adierazten da: Migel Gallastegi eta Inazio Kortabitarte Elgoibarko pilotariak direla, eta hori ez da egia. Gallastegi eibartarra da, eta Kortabitarte aulestiarra zen, denok soberan dakigunez.

Ostera, eta atal berean, ez dira aipatzen Elgoibarren jaiotako beste zenbait pilotari, bikain askoak: hala nola, Sabin Arriola, Iñaki Arriola, Jaber Arriola, Jose M<sup>a</sup> Mendikute, Enrike Gil, e.a..

Horrenbestez, barkamenak mundu guztiari egindako akatsagatik.

Bestalde, eta bide batez, eskerrik sentikorrenak eman nahi dizkizuegu aurkezpen ekitaldira hurbildu zineten guztioi, agertu zenuten interes bi-ziagatik.

Felix Etxeberria eta Xabier Lasa ☺

### Eskerrik asko

Joan zaizkigu Idotorbe-San Pedroko jaiak, eta iritsi zaigu eskerrak emateko momentua. Mila esker, jaietan parte hartu duzuen auzotar eta kaletar guztioi, baina bereziki eskerrik asko jaiak antolatzen lagundu diguzuen enpresa guztioi: Pien-

sos Unzue, Armueta, Zuatzu, San Pedro jatetxea, AGME, La Caixa, MTE, Jasone Zerbitzu Grafikoak, Beristain Logistika Banaketa, Autoservicio Arizabalaga, Cárnicas Zatzuegi SL, Aubixa base-rria, Goikoetxe harategia, Debemen eta Elgoibarko Udala.

Idotorbeko Jai Batzordea ☺

### Giza kateko argazkiak behar ditugu

Kaixo, lagun! Ekainaren 8an Euskal Herria zeharkatu zuen giza kate erraldoiaren kate-begi bat izan zinen, ezta? Lagun, senide edo ezagunen bati argazkiren bat egingo zenion, eta segur asko han-hemen zabalduko zenuen. Elgoibarko Gure Esku Dago taldeak horiek guztiak bildu nahi ditu, oroigarri gisa eta hurrengo ekitaldietan erabili ahal izateko. Lagunduko diguzu guztiak biltzen? Bidali zure argazkia helbide honetara: [elgoibarged@gmail.com](mailto:elgoibarged@gmail.com).

Eskerrik asko!

Gure Esku Dago Elgoibar ☺

## OHARRA:

Datorren astean ez da **BARREN**ik egongo. Hurrengo alea uztailaren 18an jasoko duzue.

**Badatos San Bartolomeak !!!**  
Publizitatea jartzeko:  
☎ 943 743 704

**MEKANOSA**  
Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

**CORDON VILARCHAO**

**DEKORAZIOA**

Kanpo eta barneko estaldura  
Zolak estaltzea  
Lantekuz egut, aluminio, PVC  
Pisua gisara

San Roke, 7 beheko  
Poi. Olan - Olaneko kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak  
Tel. 943 743 670

GRUP  
VILARCHAO



**Mendaroko Garagartza auzoko parkeak ez ditu segurtasun eta garbitasun neurriak betetzen:**

“Haurrentzat egokitzen diren lekuek, batez ere txiki-entzat pentsatuta daudenean, gutxieneko baldintza batzuk bete behar dituzte; segurtasuna eta garbitasuna, esaterako. Garagartzako jolas parkeak ez ditu ez bata eta ez bestea betetzen: edukiontzia oztopo bisual bilakatzen dira umeentzat eta baita gidarientzat ere, edukiontzi horiek edozein unetan errepidera atera daitezkeelako. Bestalde, garbitasun aldetik, argazki hauek ikustea nahikoa da: zaborra eta iltzeak daude jolas parkean bertan. Jolas parkeak ez dira koloretazko kautxoan bukatzen”.



**Herriko erdigune guztian OTA-TAO sistema jartzeak ez dauka zentzurik:** “Ubitarte, San Inazio eta Antonio Arrillaga kaleetan ordu eta erdiko OTA-TAO aparkatzeko sistema jarri dute, eta uste dut ez dutela gehiegi pentsatu erabaki horri hartzerakoan. Kalera etortzen direnentzako ondo pentsatuta egongo da, baina kale horietan bizi garenok non aparkatu behar dugu? Sigman ere OTA-TAO dago beraz, aukera bakarra Zizilongo aparkalekua da. OTA-TAO sistema jarri dutenetik ingurune guztia hutsik egoten da egun osoan, eta bertako bizilagunok etxetik urrun aparkatu behar izaten dugu. Beste herri batzuetan bertakoak direnentzako txartel bereziak egoten dira, eta hemen ere horrelakoren bat egin beharko lukete”.

Udaleko Hirigintza arduradunarekin jarri gara harremanetan, eta Udalaren helburua herriguneko merkataritza sustatzea dela azaldu du Rikardo Garatek, erosketak herrian egin nahi dituztenek aparkatzeko aukera izatea, alegia. Dena dela, proba-epea izango dela gaineratu du, eta ez badu funtzionatzen, berriz aztertuko dutela.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
**baren@elgoibarkoizarra.com 943 744 112**

**MILAR  
BIRE**

Ubitarte 11  
943 741 487  
[bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

**LED Telebistak • SmartPhoneak**

**Tabletak • Telefonoak**

**ZATOZ UDAKO GURE  
KATALOGOAREN BILA**

**Hozkailuak • Labeak • Garbigailuak**

**Indukzioa • Mikrouhin-labeak**

**Lehorgailuak • Aire egokitu aparailuak**

## Hondakinen gaian “asmo txarrez” jokatzea egotzi dio Alfredo Etxeberriak Bilduri

Konparazio interesatuak egin dituztela dio

**H**ondakinen inguruan EHBilduk datuak nahierara erabili dituela salatu du Alfredo Etxeberria alkateak. “Datu oker bat aukeratu dute, eta asmo txarrez egin dute, gainera”, adierazi du. EHBilduk esan zuen urtarriletik apirilera bitartean gaikako bilketa %10ean jaitsi zela eta une honetan %35, 29 birziklatzen dela Elgoibarren. Alkateak dio, baina, bilakaera erakusteko ezinbestekoa dela iaz epealdi berean izan ziren datuekin alderatzea. “Hondakinen gaian Elgoibarren zer joera dagoen ondorioztatzeko, urte bereko urtarrileko datuen eta apirilkoen arteko kenketa simple bat egiteak ez dauka inolako oinarririk eta ez du inolako asmo onik erakusten”, salatu du. Alfredok dio konparatzekotan iaz urtarriletik apirilera izan zen bilakaerarekin konparatu behar dela eta hori eginda garbi ikusten dela Elgoibarren hondakinen %7,5 gehiago sailkatu dela aurten gaika. Aldi berean, edukiontzi marroiari esker iazko lehen lauhilabetekoan eta aurtengo lehenengo lauhilabetekoan batu dena konparatuz gero, kopuru hori %54koa dela dio.



## Probalekua jarriko du Elgoibarko Udalak Sigmako aparkalekuan

Elgoibarko Udalak jakinarazi du probalekua jarriko dutela Sigmako aparkalekuan. Obra horiek egiteko, aparkalekua itxita dago dagoeneko eta hiru bat astean itxita izango dute. Rikardo Garate Hirigintza zinegotziak esandakoaren arabera, Pirinotako harria erabiliko dute probalekua egiteko, eta aurrekontua 42.000 eurokoa izango da.

## Ohorezko matrikula eskuratu dute Institutuko bost ikaslek



Argazkiko bost neska hauek ohorezko matrikula lortu dute Batxilergoan. Institutuko ikasleak dira bostak, eta hauexek dira, ezkerretik hasita: Maitane Ibarguren, Nora Bastida, Haizea Beristain, Maddi Etxabe eta Leire Melgosa. Azkeneko horrek, gainera, Leire Melgosak, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko Batxilergo ikasle guztien artean notarik altuena lortu du.

## IMHko bi ikasle eta irakaslea, Txina Skills lehiaketan



Iñigo Zinkunegi eta Jon Burgoa IMHko mekatronika saileko ikasleak eta haien irakasle Paco Navarro Txinan dira egunotan, Txinako Gobernuak sustatutako Txina Skills lehiaketan parte hartzen. Espainia/Euskal Herria ordezkatzeko dihardute, eta Txina bertako, Thailandiako, Alemaniako, Hego Koreako, Laoseko, Singapurreko eta Tanzaniako taldeak dituzte aurkari. Lehiaketa honetan arlo industrialeko hainbat proba gainditu behar dituzte ikasleek.

## Teknologia **PuntuEus domeinua**



PuntuEus Fundazioak .eus domeinua erabiltzen hasiko diren 92 erakunde aitzindariak aurkeztu zituen joan den zapatuan Bilbon. Egun horretan bertan aktibatu ziren lehen webgunetako domeinuak. Aitzindarien Fasearen ondoren, abiarazte-aldia etorriko da. Abiarazte aldiaren mota guztietako erakunde publiko, elkarte eta enpresek euren domeinu-izenak eskatu ahal izango dituzte, lehenetsunez, publiko orokorrera ireki aurretik. Abiarazte-aldia zehazki irailaren 16an hasi eta azaroaren 18an bukatuko da. Tarte horretan eskaera egiten dutenen domeinu-izena abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, aktibatuko da. Ordutik aurrera, azken fasean, norbanakoek izango dute domeinua eskatzeko txanda.

*Aitzindariak.eus* webgunean ikus daitezke domeinua aktibatzen lehenak izango diren enpresa, hedabide, erakunde publiko eta euskalgintzako elkarten zerrenda. Aitzindarien artean, 9 enpresa, 23 erakunde publiko, 14 hedabide eta 46 entitate daude. BARREN astekaria parte den TOKIKOM elkarte ere aitzindarietako bat izan da.

## Ekimena **Musika jardunaldi interaktiboak**

Tailerak, klinikak (aholkularitza pertsonalizatua) eta emanaldiak uztartuko ditu musika jardunaldi interaktiboak, uztailaren 17tik 27ra bitartean, Kultur Etxeko so-toan. Jardunaldiak antolatu dituen Oier Gurrutxaga musikari elgoibartarrak azaldu duenez, arlo desberdinetako musikarien elkarrekintza sustatu nahi du, jardunaldien barruan antolatuko dituen tailerretan. Tailerak irekiak eta doakoak izango direla zehaztu du.

Gainera, inprobisazioa landu ahal izateko hainbat musika tresna eta back-track bilduma zabala jarriko ditu Gurrutxagak parte hartzaileen eskura. "Bakoitzak bere gustu eta beharretara egokitzen diren tailerretan parte hartzeko aukera izango du, musika estilo desberdinetan banatuta egongo baitira". Kontzertuak ere antolatuko dituzte artista edo irakasle gonbidatuen parte hartze-



arekin. Informazio gehiago: [oierrutxaga@gmail.com](mailto:oierrutxaga@gmail.com) edo <http://aimog.org/pagina-principal/index.html> orrialdean.

## Idotorbe jaietan zozketatutako errifa sarituak

Igandean egin zuten Idotorben jaietako errifa zozketa eta honako zenbaki hauek dira sarituak. Lehenengo saria: 6.991 (erreserbakoa: 1.743). Eta bigarren saria: 6.887 (erreserbakoa: 3.827). Antolatzaileek telefono zenbaki bat jarri dute saridunak eurekin harremanetan jar daitezten: 607 584 011.

## Ekintzailatza sustatzeko diru-laguntzak eskatzeko epea luzatu du Debegesak

Gipuzkoako Foru Aldunditik lortutako laguntza bati esker, Debegesak 120.000 euro emango ditu enpresa berriak sortzea sustatzeko. Eskaerak aurkezteko epea 2014ko urriaren 15era arte dago zabalik. Laguntzak eskuratzeko betebeharreko baldintzak webgunean argitaratu ditu Debegesa garapen agentziak: [www.debegesa.com](http://www.debegesa.com). Diru-laguntzak negozio edo aktibitatea mar-tan jarri ahal izateko egingo diren inbertsioak laguntzeko izango dira, inbertsioaren %75a arte, proiektu bakoitzeko gehienez 7.000 euro eta industria arloko enpresen kasuan, 10.000 euro gehienez.

## Fracking-aren kontrako sinadura bilketa ibiltaria bihar iritsiko da gurea

Fracking-a edo haustura hidraulikoaren bidez gasa erazteko teknika debekatzeko eskatzeko, sinadura bilketa ibiltaria hasi zuten astelehenean, ekainaren 30ean, Gasteizen, eta bihar, uztailaren 5ean, iritsiko dira Elgoibarrera, Zumaiatik bueltan. Bizikletaz egiten ari dira bidea, eta Gasteizen hasi eta Gasteizen amaituko dute ibilbidea. Egunean 40 bat kilometro egiten dituzte, eta biharko etapa Zumaiara hasi eta Sorluzen amaituko dute, handik Gasteizera joateko. Informazio gehiagorako: [www.frackingez.org](http://www.frackingez.org).



**Ez da oharkabeen pasatzen Francisco Javier Beato 'Frantxu' Elgoibarko kaleetan. Izan ere, kate berean lotuta ateratzen ditu laupabost txakur pasiatzera egunero. Zein baino zein txintxoago, denek jarraitzen diote Frantxuri, eta zintzo betetzen dituzte haren aginduak. Txakur-sorgintzailea da.**

**Ainhua Andonegi**

**D**ebatik bueltan, Aiastira igo da Frantxu, *Arruren* bila, eta gero Ermura doa, gaurko azken txakurra jasotzera. Handik bueltarako jarri dugu hitzordua Sallobenten. Berandu dator. Gelatxo-Errota inguruan agertu da furgoneta zuria ziztu bizian, eta konturatu orduko iritsi da eliza atzeko aparkalekura. Furgonetako atea ireki eta txakur zaunkak entzuten hasi gara Sallobenteko lasaitasunean. Banan-banan hasi dira irteten txakur guztiak: *Jack, Enzo, Lukas, Beltz, Lennon, Gus, Sugar, Arru, Pipa eta Runa*. Hamar txakur eta gizon bat, denek bat eginda familia osatzen dute.

Asturiasen jaio eta hango baserri batean hazi zen Francisco Javier Beato *Frantxu*. Ani-

maliz inguratuta eman zuen haurtzaroa, eta hortik dator kio txakurrekiko maitasuna. Orain dela zazpi bat urte iritsi zen Elgoibarrera, eta IMHn egin zituen mantenu ikasketak. Gelako espediente onena eskuratu, eta Elgoibarko enpresa batean hasi zen lanean, krisia iritsi zen arte. Lanik gabe geratu zen, eta beste hainbat gaztek egin duten bezala, Alemania-ra joatekotan egon zen bera ere, baina hizkuntzaren oztopoarekin egin zuen topo. Beharrak bultzatuta, beraz, sormena jarri zuen martxan: txakurrak zaintzen hasi zen.

Etxauriko Neskak elkartearekin elkarlanean, txakurrak harreran hartzen hasi zen. Txakurrak zaindu, hazi, hezi eta interesa zuten familiei ematen zizkien adopzioan. Horietako txakur bat ezin izan zuen eman. *Runa* oso

berezia da Frantxurentzat, eta azkenean berak adoptatu zuen. Frantxurekin etxea konpartitzen zuen neskak ere txakurra zeukan; *Pipa*. Batera hazi ziren bi txakurrak, eta banatzeko ordua iritsi zitzairenean, jateari laga zioten batak zein besteak. Ezin izan zituzten banatu, eta *Pipa* ere adopzioan hartu zuen Frantxuk.

Bi txakurrekin nahikoa ez, eta txakurrak zaindu ezin dituzten jabeen txakurrak pasiatzen hasi zen. Hasieran bat, gero beste bat, beste bi hartu zituen geroago, eta gaur egun hamalau txakurrekin ibiltzen da zenbait egunetan. Ermutik Zarautzera bitarteko herrietan eskaintzen ditu zerbitzuak. Orduka, egun osorako, eta asteburu edo oporraldietan ere hartzen ditu txakurrak. Izugarri maite ditu txakur-



kurrak, eta txakurrek ere maite dute bera. Badakite bera dela zaintzailea, berak ematen dizkien aginduak euren onerako direla, eta bakarren batek oraindik ere kasu gutxi egiten badio ere, zintzo betetzen dituzte gehienek bere aginduak. Makila eta pilota erabiltzen ditu aginduak emateko, eta tresna simple horiekin menderatzen du txakur-taldea. *Etorri, sit, etzan, goazen* edo *geldi* hitzak ohikuatzearekin batera, adi-adi begiratzen diote txakurrek. Sorginduta ditu txakurrak, eta txakurrek sorginduta dute Frantxu. Ez du txakurrak hezteko ikastarorik egin, baina berezkoa du txakurrekin komunikatzeko gaitasuna. Txakur instruktore askorekin egon izan da, eta haiei begira ikasi du txakurrak hezten. Taldean lan egiten du txakurrekin, eta kopiaren sistema erabiltzen du txakurrei irakasteko. Taldera txakur berri bat iristen denean apur bat galduta ibiltzen da hasieran, baina gainerakoek jarrerak ikusiz eta kopiatuz, berehala barneratzen dituzte Frantxuren aginduak.

Eta ondo irakatsita ditu txakur guztiak. Arrak zein emeak, hainbat arrazatako txakur taldea gobernatzeko du Frantxuk, baina ondo baino hobeto konpontzen dira elkarren artean. Hierarkiak dituzte taldean, eta denek errespetatzen dute mailaketa hori. *Pipa* da txakurren artean nagusia. Beagle arrazako txakur emea da, eta taldera iristen lehengoan izan zenez, berak jartzen dizkie gainera koei arauak. Hala ere, txakurren gainetik dago Frantxu, eta txakur guztiek badakite haren aginduak bete behar dituztela.

Txakurrekin ez du inolako arazorik izan Frantxuk, baina bai jendearekin, eta bereziki, Elgoibarren. Elgoibarko kaleetan jendeak gaizki begiratzen diola dio, txakurrak lotuta eramaten dituen arren. Badaki txakurren gaineko araudiak zer dioten, eta betetzen duela dio, baina herritarrei ez zaie gustatzen hainbeste txakur batera ikustea. "Txakur-taldea arazoez lotzen dute", esan du Frantxuk penaz. Ezjakintasunak txakurrenganako beldurra eta jokaera okerrak sortzen dituela uste du, izan ere, txakur talde berekoak diren txakurrek oso arazo gutxi ematen dituztela adierazi du. Dena dela, herritarrekin arazorik ez izateko, herrigunetik kanpora joaten da txakurrekin. Landa auzoetan ere uste baino arazo gehiago izaten ari da hainbat baserriarrek, baina beste asko jator portatzen direla onartu du eta txakurrekin jolasteko hainbat gune aurkitu dituela. Hala ere, txakurrek leku

berriak ezagutzeko beharra dutela esan du Frantxuk. Bere ustez, txakurrak egunero toki berean ezin dira egon, eta horregatik bere zerbitzuen artean, egunpasa joateko txangoak ere eskaintzen ditu. Zarautzera, Gorbeara edota Covadongara joaten da noizean behin, bere txakur taldearekin. Goizean goiz jasotzen ditu txakurrak egunpasa joateko, eta iluntzean ekartzen ditu etxera. Covadongako elizan izan zuen anekdota kuriosoa txakurrekin: jendeak txanponak botatzeko urputzu bat dago Covadongako elizan, eta han sartu zitzaizkion txakurrak, bainua hartzera. Emakume batek sekulakoak esan ei zizkion eta Guardia Zibila etorri zen. Beldurtu egin zen Frantxu, eta isuna jarriko ziotela ere pentsatu zuen. Halako batean, Covadongako apaiza gerturatu zitzaizen hura Jainkoaren etxea zela esanez, eta han denak zirela ongi-ettorriak, gizakiak zein animaliak. Lasaitu ederra hartu zuen Frantxuk hori entzutean.

Txakurren bueltan antolatu du bizimodua

Frantxuk, eta aurrera begira negozioa profesionalizatzea nahiko luke. Lursail bat erostea gustatuko litzaioke, txabola bat eta ur sistema egokia jarriz, txakurrak han eduki ahal izateko. Txakurrekin eta txakurrentzat bizi da Frantxu. Txakurrak maite ditu, eta argi dauka ume bat eta txakur bat ibaian itotzen ikusiko balitu, berak txakurrari lagunduko liokeela. Jendeak ez du ulertzen hori esaten duenean, baina eman du bere arrazoia: "Umeari laguntzeko beste hamar lagunek salto egingo lukete, baina txakurrengatik inork ez luke bizitza jokoan jarriko".

## Harremanetarako:

e-posta:

[cuidadordeperro@outlook.es](mailto:cuidadordeperro@outlook.es)

Tel.: 650 015 311



## AITOR ETXEBERRIA

Bere obra Mexikoko areto garrantzitsu baten erakusteko aukera izan zuen iaz Aitor Etxeberria margolari mendaroarrak. Frantzian edota Italian hainbat erakusketa egin izan ditu, baina Mexikokoa izan zen Atlantikoaz beste aldean erakusketa egin zuen estreinako aldia, eta oso pozik itzuli zen bidai hartatik. Gaur, etxetik gertuago inauguratuko du beste erakusketa bat: Zumaiko Oxford aretoan jarriko ditu ikusgai bere azken lanak, hilaren 20ra arte. ‘Inguruak’ izena jarri dio erakusketari, eta formato handiko koadroetan erakutsiko ditu gure inguruak, paisaiak; bere begiek ikusten dituzten paisaiak.

**Ainhoa Andonegi**

Zumaian inauguratuko duzu erakusketa gaur, ‘Inguruak’ izenburupean.

Ez da erraza izaten erakusketa bati izena jarzea. Ez zait gustatzen koadroari izena jarzea, baina gustatzen zait erakusketa bakoitza gai baten bueltan osatzea. Koadroek hurremana dute batak bestearekin, hari bat jarraitzen dute nolabait esateko, eta estetikoki baldintza batzuk betetzen dituzte guztiak. Formak edo koloreak erlazionatuta daude, nahiz eta koadroak desberdinak izan. Zaila



egiten zait hitzekin nire obra definitzea. Estudioan sartzan naiz, eta margotzen hasten naiz, erakusketan pentsatu gabe. Gerora agertu daiteke erakusketa egiteko aukera, eta orduan hasten naiz koadroen arteko ha-

ria lantzen. Helburu bat finkatzea gustatzen zait, lanean diziplinatua izateko, bestela konstantea izatea zaila egiten da. Erakusketa bakoitzerako istorio berri bat sortzea gustatzen zait, nahiz eta gaia berbera izan. He-

**“Mugak ez dira onak sortzeko,  
baina askatasun osoa ere ez da existitzen”**

rialdearen, herriaren edota aretoaren arabera moldatzen ditut lanak.

### **Zenbat lan jarriko dituzu ikusgai?**

Areto handia denez, formato handiko zortzi bat koadro eramango ditut, eta beste pare bat txiki. Azken hiru-lau urteetan eginiko lanak izango dira. Batzuk berriz ikutu behar izan ditut, orain dela lau urte eginiko lan batzuk ez nituelako nire gustura ikusten. Orain lortu dut koadroen arteko haria sortzea. Elkarren ondoan jarrita ez dira berdinak, baina denek dute elkarren arteko lotuaren bat.

### **Zein estilotako koadroak dira?**

Abstraktuak, lirikoak, espresionismo ikutu bat ere badute... Ez dakit nola definitu. *Inguaruak* jarri diot izena, paisaiak ageri direlako. Nire barneko paisaiak margotzen ditut, espresio gestualak, nolabaiteko modu kaotikoan. Paisaiak dira, baina oso bereziak. Formak ageri dira nire koadroetan. Nik ez ditut arbolak edo txabolak ikusten, formak ikusten ditut, eta forma horiek margotzen ditut. Baina koadro gehienek badute nolabaiteko silueta bat, mendia eta zerua irudikatzen dituen, eta horregatik esaten dut paisaiak direla. **Inprobisazioak badauka lekurik zure lanetan?**

Bai, dena inprobisatzen dut. Koadroa margotzen hasten naizenean ez dut jakiten nola koa izango den emaitza, poliki-poliki joaten naiz sortzen. Koadro zurian hasten naiz, eta irudiaren eraiketa prozesu horretan elementuak kendu eta ipintzen ditut, koloreak aldatu... Estudiora sartu eta koadro bat begira dudala ikusten badut, ikuturen bat egiten diot zerbait falta duelako. Batzuetan kostatzen zait koadroak amaitutzat ematea. Inguaruak bilduma honetan konturatu naiz forma geometriko batzuk agertu zaizkidala, orain dela lau urte batzuk sortu nuen beste bilduma bateko elementuak, alegia. Forma geometrikoak landu nituen, eta konturatu naiz aurrez ikasitako gauzak agertu egiten direla ondorengo lanetan. Ez dakit zergatik, baina oso interesgarria da. Horrek erakusten du pertsona baten sormena noraino iristen den. Mugak ez dira onak sortzeko, baina askatasun osoa ere ez da existitzen. Artista bat askotan jartzen da ikusleen lekuan eta beti daukazu buruan besteek nola ikusiko duten zure lana.



**“Arteaz bizi nahi duenak lan komertzialak egin behar izaten ditu askotan, artista oso ona izan arren”**

### **Iaz Mexikon izan zinen. Nola iritsi zitzaizun Atlantikoaz bestaldean erakusteko aukera?**

Urtero hiru edo lau euskal artista aukeratzen dituzte Mexikoko Casa Galeria aretoan erakusteko, eta iaz ni izan nintzen horietako bat. Urte askoan Mexikon bizi den margolari euskaldun batek kudeatzen du galeria hori, eta hango jendearekin lan egiteaz gain, Euskal Herriko artisten ikuspegia zabaldu nahi du Mexikon. Lan gehienak erakusteko prest eraman nituen, baina koadro batzuk han bertan bukatu nituen. Bost astez egon nintzen han, eta esperientzia izugarria izan zen. Mexiko DF arriskutsua zela esan zidaten, eta beldurtuta joan nintzen, baina primeran irten zitzaidan dena, eta erakusketa ere oso ondo joan zen, gainera. Arte munduan dabilen jendea normalean gerturatzen da erakusketetara, baina nire kasuan jende asko etorri zen izen-abizen euskaldunak nituela ikusi zutelako. Kurioa izan zen. Ni hona itzuli ondoren ere beste hiru bat erakusketa antolatu ditut, eta jarri ditut nire hainbat lan erakusketa horietan ere. Artea orain hasi da indarra hartzen Mexikon. Artistak eta galeriak suspertzen ari dira han, eta baita Hego Ameriketako oro har. Ez da erraza, baina gustatuko litzaidake Hego Ameriketako beste herrialderen batean ere erakustea.

### **Artista batentzat zein garrantzia dute erakusketek?**

Koadroa bukatu gabe geratzen da ez baduzu erakusten. Artistak egin du bere parte, baina jendearen iritzia jasotzea ere oso garrantzitsua da. Norberaren obrari buruzko ikuspegia ere aldatuz joaten da denborarekin, eta niri esate baterako, orain dela lau urte batzuk margotutako zenbait koadrok duda sortzen didate gaur egun, oso ezagunak dira niretzat eta ez naute hunkitzen. Baina lehenengo aldiz ikusten duenak beste sentsazio batzuk izango ditut, eta hori jasotzea oso interesgarria da egilearentzat. Hala ere, nik apur bat gainditu dut koadroak edonon erakutsi behar hori. Orain saiatzen naiz aretoak eta galeriak aukeratzen erakusketak egiteko, baina ez da erraza.

### **Afizioa ala ofizioa da zuretzat pintura?**

Afizioz egiten dut. Ez naiz hemendik bizi, nire ofizioa daukat, baina profesional bezala bizi dut pintura. Galeria baten erakusteak ate asko zabaltzen ditu. Koadroak salgai egoten dira, eta batzuetan saltzen dira koadroak. Nire helburua saltzea balitz soilik, ez nituzke formato handiak egingo, txikiak askoz errazago saltzen direlako. Ezagutzen dut pinturatik bizi den jendea, baina zaila da. Nik, artista izateko, 8-9 ordu lan egin behar dut beste leku batean.

### **Aurrera begira, zein dira zure asmoak?**

Une honetan eskultura daukat buruan. Hasi nago lan batzuk egiten, baina iruditzen zait ez direla izango jendearen gustukoak. Nire bidea bilatu nahi dut, ez dut nahi eskultura komertzialak egitea. Artelanak egin nahi ditut. Pintore eta artista izatea desberdina dela irakurri nuen. Saltzen dena margotzen duena pintorea da, eta aldiz, margotzen duena saltzen duena, artista. Ez da erraza. Arteaz bizi nahi duenak lan komertzialak egin behar izaten ditut askotan, artista oso ona izan arren.

# ‘EROEN’ DANTZA

Josu Mujika koreografo elgoibartarrak sortutako *Itsaslaboa / Txoriak*, zoroen *itsasoan* izeneko koreografia aurkeztuko du Dantzas konpainiak Lekeitioko kaleko antzerki jaialdian. Mikel Laboaren kantuetatik abiatutako lana da, 35-40 minutuko dantza-ikuskizuna. Uztailaren 11n estreinatuko dute obra, 23:00etan, Lekeitioko Isuntza hondartzan, eta biharamunean, hilaren 12an, bigarren saio bat eskainiko dute leku eta ordu berean.

Ainara Argoitia



Josu Mujika koreografo elgoibartarra.

**M**ikel Laboaren (Donostia, 1934-2008) kantuekin Lekeitioko Isuntza hondartzan egiteko moduko dantza ikuskizuna prestatzeko enkargua jaso zuten Dantzas konpainiak eta Josu Mujika koreografo elgoibartarrak iaz, Joseba Sarrionaindiaren (lurreta, 1958) poema musikatuarekin osatutako *Naufragoak* ikuskizunarekin hara-hona zebiltzan garaian. Ez zen edozelako erronka, eta halaxe onartu zigun Mujikak berak BARRENEK sanbartolomeen harira egindako elkarrizketan. “Erronka handia da. Mikel Laboa ez zelako edonor! Ezin esan, hala ere, eskaintza tentagarria ez denik”, zioen orduan. Ardura bazuen, hala ere, Sarrionaindiaren poemekin egin diren kantuen aldean, Laboarenak motelak direlako eta ez zekielako nola egingo zuen “tentsioa mantentzeko”. Baina lortu du, eta gustura dago. Are, harritu ere egin dela aitortu du, lehen luze egiten zitzaizkion kantuak motz egin zaizkiolako dantzariekin lanean hasi denean. Enkargu hark, hala ere, bazuen erronka handia egiten zuen beste osagai bat ere: Lekeitioko aurkeztekoa zela obra, aldi batez Mikel Laboaren umetako bizitokia izan zen herrian. Izan ere, 36ko Gerran, Mikel Laboaren aitak Bordelera ihes egin zuen, eta amak Lekeitioko baserri batera joan behar izan zuen, zazpi seme-alabak hartuta. Bertan bizi izan zuen Mikelek Gernikako bonbardaketa ere, 3 urte zituenean, eta orduko oroitzapenekin ondu zituen gerora abesti asko.

## Eroen mundua, azalera

Itsasoaren presentzia eta Laboaren kantuen indarra uztartzeko es-

katu zioten Mujikari eta ikuskizunarentzako izena ere eman zioten: *Itsaslaboa*. Hala ageri da Lekeitioko 2014ko kaleko antzerki jaialdiko sortu dituzten karteletan, nahiz koprodukzio honek *Txoriak*, zoroen *itsasoan* izena hartuko duen gero. Izenburuak badu bere arrazoia. Dantzarako istorioa sortzeko, Laboa musikariarengan baino gehiago Laboa psikiatran oinarritu da Mujika, eta hortik zoroari aipamen hori. 60ko hamarkadatik hona Laboa euskal musikagintzaren erreferentzia handienetakoa izan bada ere, Mujikatarrean psikiatra izan zen Mikel Laboa, kantari baino lehen. “Gure anaia gazteenak Down sindromea du, eta Mikel Laboak tratatu zuen umetan. Gaur ere, Laboaren gaztetako argazkia erakutsiz gero ‘Han, Laboa’ esaten du anaiak. Ikaragarri estimatzen zuen”, azaldu du Josu Mujikak. Inork gutxik izango du harreman horren berri, eta Mikel Laboaren emazte Marisol Bastidak berak ere oraintsu jakin du. “Obra hau prestatzen hasi nintzenean, gutun bat idatzi nion bere senarrarekin izan genuen harremanaren berri emanez. Iñaki Salvador musikariak animatu ninduen, Laboaren lagun minak. Kantuak erabiltzeko baimena behar genuen, eta ‘Marisolek hori jakin beharra du’ esan zidan Iñakik.”

Eta halaxe, Laboa sendagilearekin izandako harreman hori inspiratortzat hartuta, osasun-etxe batean girotu du obra Mujikak. Osasun-etxe horretako gaixoak dira dantzariak, eta euren eromena erakusten dute, kantari donostiarraren abestien “puntu zoro” horren bidez. Badutelako horretatik ere Laboaren kantuek, Mujikaren iritzirako. “Kantu batzuetako absurdoa, *Cantinflas... no te me achicopales* eta antzeko

esaldiak tartekatzen dituenean... Jeniala da. Niretzat halakoetan dago Mikel". Elgoibarren "harrituta eta liluratuta" utzi zueneko ekarri du gogora Mujikak. "Elgoibarko Izarra kultur elkarteak Elgoibarrera ekarri zuenean ere halaxe iruditu zitzaidan. 'Kateak itsusiak baitira hilotzaren gorputzean' diharka hasi zenean.... zer zen hura! Hau zoratuta dago pentsatu genuen, ez geunden-eta halakoetara ohituta garai hartan. Euskal abeslariak Euskal Herriari abesten zioten garaia zen. Hura zen tipo ausarta! Barre ere egin nuen, hori bai", aitortu du.

Eta hein batean, ez da harrizkoa. Josu Mujikak aurrenekoz Elgoibarren entzun zion *Zaude lasai* kantu hark [Joxean Artzeren poema musikatua] eta ondorengo *Lekeitioak* deituriko kantuek asko zutelako esperimenez, asko zutelako berrizailatik. Hori guztia aitortzen dio Mujikak berak ere kantari donostiarrari, baina enkargu hau jaso zuenean garbi zeukan *Itsaslaboa* obrak ezin zuela Mikel Laboari egindako beste omenaldi bat izan. "Ez nuen nahi. Asko egin dizkiote eta iruditzen zitzaidan bazela garaia etapa hori amaitzeko. Laboaren kantuak eza gutzen ez dituztenentzat ere ulergarri eta erakargarri izateko ikuskizuna sortu nahi nuen, beti ere Laboarekiko errespetutik". Hala ere, eta Laboa omentzeko bokazioz sortu ez badu ere, omenaldi on baterako osagai guztiak batzen ditu koreografia honek.

## Ikuskizun moldagarria

"Erakargarria eta ikusgarria" egin nahi izan du ikuskizuna, eta baita "bizia eta ulerterreza" ere, kalean antzetzeko obra batek ezin bestean behar dituelako, Mujikaren ustez, bi ezaugarri horiek, azken batean kalekoa ez delako ikusle espezializatua; "ez duelako zertan izan, behinik behin". Hala, dantza ikuskizun bizia prestatu du, eta "plastilinaren antzera" edozein agertokira egokitzeko modukoa, hondartzan erakusteko sortu badute ere, asmoa hamaika plaza eta eszenatokitan eskaintzea dutelako. Hamalau dantzari ariko dira dantzan, Euskal Herritik kanpokoak ere bai tartean, eta

itsasoa irudikatzeko izara zabal bat, Ipar Euskal Herriko tailer batean eskuz egindako diseinuzko egurrezko aulkiak eta hainbat soka eta goma erabiliko dituzte, besteak beste, eroen mundua antzetzeko. Ikuskizuneko momentu batean, *picnic* bat ere egingo dutela aurreratu digu zuzendariak, eta une hori ikusleak ikuskizunean sartzeko baliatuko dutela; "Saiatu nahi dugu behintzat", dio.

## Orduerdi pasatxoko saioa

Koreografia prestatzeko, Mikel Laboaren diskografia osoa entzun du Mujikak. "Zoratu ere egin naiz". Dozena bat kantu inguru aukeratu ditu, eta Iñaki Salvadorrek egin dizkio batetik besterako loturak, trantsizioak. *Elgeta*, *Lili bat*, *Gaberako aterpea*, *Nao es tu*, *faculdade de sentir*, *Negua (Txorien heriotza)*, *Komunikazio-Inkomunikazioa*, *Ne me quite pas*, *Kateak itsusiak baitira*, *Txoriak txori*, eta *Haika mutil* aukeratu ditu, besteak beste, eta txorien kantuak ere baliatu ditu trantsizioetarako. Material guzti horrekin, 35-40 minutuko ikuskizuna prestatu du, eta uztailearen 11n estreinatuko dute. "Bukaera fintzea falta zait, errematea. Musikaren mailan egon beharra daukat eta hor nabil nola egin erabaki ezinda", aitortu du. Ideiak sobera dauzka, baina ez ditu oraintxe egun asko falta. Konfiantza osoa du, hala ere, taldearengan. "Dantzari hauekin sei-zazpi orduan zer ezin daiteke egin! Oso-oso onak dira", esan du harro.


Datorren astean hondartzan entsegatuko dute, Donostian. Izan ere, edonork daki hondar gainean dantza egiteak aparteko prestakuntza eskatzen duela, pausoa ematea bera ere nekagarria egiten delako. Hiru entsegu egingo dituzte, eta atzera kontaketa hasiko dute. Badakite uztailearen 11ko estreinaldian kultur programatzaile asko izango dituztela begira, eta horrenbestez, asko dutela jokoan, baina iazko aldean "oso lasai" dagoela aitortu du Josu Mujikak. "Dantzari talde honek berme hori ematen dizu".



Dantzas konpainiako dantzariak, estreinaldirako entsegatzen.

## Jon Gurrutxaga eta Uxue Alberdi, Donostia 2016 egitasmoaren kantuan

Joan zen zapatuan aurkeztu zuten 'Oreka' kantua



**D**onostia Europako Kultur Hiriburua izendatu zutenetik hiru urte bete direla-eta jaialdi berezia egin zuten joan zen zapatuan, ekainaren 26an, Donostian. Aukera horixe baliatu zuten *Oreka*, Donostia 2016ren ereserkia, aurkezteko ere. Harkaitz Canok, Angel Errok, Iñigo Goienetxek eta Uxue Alberdik idatzi dute testua, eta Uxuek letrak ez ezik, ahotsa ere jarri dio abestiari. Uxuekin batera beste elgoibartar batek ere parte hartu du kantuan: Jon Gurrutxagak. Ainhoa Garmendia, Francis Diez (Doctor Deseo), Leire Martinez (La Oreja de Van Gogh) Ainara Ortega, Amancay Gaztañaga, Ines Osinaga (Gose), Oreka Tx, Pello Reparaz (Vendetta), Aiora Errenteria (Zea Mays) eta Wankak (Selektah Kolektiboa) osatzen dute abeslarien taldea. Konposizioa, berriz, Juantxo Zeberio pianojolearena da.

## Musika elektronikoaren jaialdiak hartuko du bihar Albitzuri industrigunea



Khri Rios eta David MK jaialdiaren antolatzaileak.

Musika elektronikoa gustuko duenak gozatzeko aukera paregabea izango du bihar Elgoibarren. Izan ere, Kida Events elkarteak David MK eta Khri Riosen hamabi

orduko jaialdia antolatu dute biharko, Txarri-dunaren laguntzarekin. 15:00ak aldera hasiko da jaialdia eta goizaldeko hirurak aldera amaitu. Euskal Herriko antzoki ezagunetan pintatzen duten DJak etorriko dira Elgoibarrera, "Espainia iparraldeko onenak", antolatzaileen esanetan. Horetako asko ezagunak dira Elgoibarren musika mota hau gustuko dutenentzat, askok Guass dantzalekuan eman zituztelako lehenengo pausoak. Iñigo Diaz Kryptonita, Patt eta Carlos Gonzalez dira kartelburuetako batzuk eta haiekin batera arituko dira lau elgoibartar ere: Juanan, B. Gutierrez eta antolatzaile lanetan jardun diren David MK eta Khri Rios bera. Sarrerak salgai daude dagoeneko, 15 euroan. Txarri-dunaren, Eibarko Oishi tabernan edo Ermuko Sagarran eros daitezke, eta Internetez [edf.ticketbox.es](http://edf.ticketbox.es) helbidean. Bihar, 18 euroan jarriko dituzte salgai.



## Pirritx eta Porrotx pailazoak bihar, Mendaron

Pirritx, Porrotx eta Marimotos pailazoak Mendaron izango dira bihar, zapatua. *Bizipoza* ikuskizuna eskainiko dute, 19.00etatik aurrera Mendaro Ikastolako jolastokian. Sarrerak 7 euroan jarri dituzte salgai, Morroskillo dendan (Herriko Enparantza, 18), baina bihar ere ikastolako sarreran ere erosi ahal izango dira. Ikuskizunaren gaineko jakingarri guztiak [www.katxiporreta.com](http://www.katxiporreta.com) webgunean daukazue.

## Losintxa lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak, jaien atariko modura

Losintxa edo piropo lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak. Edozeinek parte hartu dezake, eta hiru dira losintzek bete beharreko baldintzak: euskara hutsean izatea, originalak izatea eta sexistak ez izatea. Losintxak liburutegian eta herriko tabernetan jarriko dituzten kaxetan laga beharko dira, uztailearen 13a baino lehen. Irabazelak 50 euro jasoko ditu.

## Santonetako helduen danborradarako entseguak

Ekainaren 30ean hasi zituzten helduen danborradarako entseguak Mendaron, eta martitzenean izan zuten bigarren entsegu eguna. Uztailean, 7,9,14, 16 eta 21ean batuko dira ikastolan, entseguarako.

# Jorge Gonzalez eta Ainhoa Lendinez nagusi, Nahaste Borraste proban

51 lagunek hartu dute parte aurtengo lasterketan

**J**oan zen barixakuan jokatu zuten Kimetz Elkarteak antolatutako Nahaste Borraste proba herrikoia, eta elizako kanpaiak 19:00ak jotzearekin bat irten ziren partaideak bizikletan, Txankakoako zubitik. Zazpi kilometroko ibilbidea osatu ostean Jorge Gonzalez iritsi zen plazara lehen postuan, eta lasterketa osoan eutsi zion aurreneko postuari. 18:38 denborarekin, Gonzalezek jantzi zuen txapela, baina oraindik ere Iñigo Larizek dauka probako errekorra, 18:01ean. Emakumezkoetan Ainhoa Lendinezek irabazi zuen; beterano A mailan David Conde izan zen lehenengoa, eta Beterano B kategorian, berriz, Iñaki Ulazia. Kadetetan Beñat Bollar izan zen azkarrena, eta beteranoetan beteranoena, Antonio Fernandez izan zen. Argazki gehiago: [www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net) atarian.



## Sailkapena

1. Jorge Gonzalez	18'38"
2. Loren Galeano	18'47"
3. Aitor Beneitez	18'57"
4. Jon Larrañaga	19'06"
5. David Konde	19'16"
6. Javier Fernandez	19'39"
7. Ion Irazabal	19'47"
8. Iñigo Araujo	19'51"
9. Ivan Gonzalez	20'06"
10. Beñat Bollar	20'13"
11. Jose Antonio Ruiz	20'25"
12. Hasier Murua	20'31"
13. Garikoitz Muñoz	21'02"
14. Ainhoa Lendinez	21'02"
15. Gorka Gonzalez	21'04"
16. Arkaitz Bernedo	21'04"
17. Antxon De La Arada	21'07"
18. Iñaki Ulazia	21'15"
19. Alberto Seijas	21'36"
20. Sergio Galindo	21'38"
21. Goiatz Leibar	21'39"
22. Oier Irazabal	21'43"
23. Aitor Zubiaurre	21'45"
24. Iban Fernandez	21'49"
25. Iñigo Zubiaurre	21'55"
26. Antton Alberdi	21'58"
27. Nerea Lendinez	22'01"
28. Eneko Etxaniz	22'02"
29. Eduardo Varona	22'02"
30. Angel Kintana	22'14"
31. Mikel Garmendia	22'16"
32. Josu Iriondo	22'29"
33. Igor Loidi	22'37"
34. Dionisio Gorria	22'54"
35. Julen Hernandez	22'58"
36. Asier Basurto	23'02"
37. Josu Zubiaurre	23'09"
38. Jon Gerrikabeitia	23'17"
39. Aitor Romera	23'17"
40. Alberto Zelaia	23'20"
41. Asier Arizaga	23'23"
42. Iñigo Oñederra	23'25"
43. Asier Lizarralde	23'50"
44. Gorka Garate	24'41"
45. Kepa Castro	24'48"
46. Antonio Rodriguez	25'10"
47. Iker Panizo	25'21"
48. Julia Kintana	25'21"
49. Oier Ruiz	25'53"
50. Aitor Urain	27'29"
51. Antonio Fernandez	28'46"

# JESUS MARI UNCILLA

CD ELGOIBAR KLUBEKO PRESIDENTEA



CD Elgoibar klubeko presidente kargua hartu berri du Jesus Mari Uncillak (Elgoibar, 1956). Edu Arrietak bete du kargu hori 2012az geroztik, eta urteko batzar orokorra egin aurretikoan hartu zion lekukoa Uncillak, joan zen astelehenan. Ez da berria, hala ere, klubean. Lau urtez izan da taldeko diruzaina, eta aurrez beste zortzi urtez ibilia da zuzendaritza taldean. 2012-2013 denboraldiak eman duenaz eta etorkizunerako erronkez galdetu diogu.

## “Balorazio positiboa egiten dugu denboraldiaz, harrobiko taldeetan lan ona egiten ari garelako”

Haundi eta Preferente mailako taldea mailaz jaitsi dira eta emakumezkoen taldea desegin. Kirol arloan, behinik behin, ezin esan denboraldi ona izan denik. Ala?

Bai, horiek denak gertatu dira, baina ez genuke esango denboraldi txarra izan denik. Guk geuk balorazio positiboa egiten dugu, harrobiko taldeetan lan handia eta ona egiten ari garelako eta pentsatzen dugulako horrek emango dituela emaitzak. Futbol eskolatik jokalari asko datoz eta ondo ari dira lanean, eta, gainera, gozatzen, ikusten ditugu. Guretzat horrek garrantzia berezia du. Emaitzei

bakarrik begiratzen badiegu, eta goiko taldeei, bada bai, ez da guk nahiko genukeen urtea izan, baina CD Elgoibar hori baino gehiago da. Zuzendaritzan ilusioarekin ari gara lanean, eta badakigu hobetzeko gauzak badauzkagula, baina esango nuke orokorrean hartuta, ondo ari garela, nahiz eta badakigun, normala den moduan, hiru talde horien emaitzek oihartzun handiagoa hartuko dutela behiko taldeekin egunero egiten dihardugun lanak baino. Hein batean, baina, emaitza horiek normalizat ere hartu behar ditugu.

‘Gozatu’ hitza aipatu duzu. Kirolean beste

ezeren gaintik lehia nabarmentzen den garaiotan, haurrek kirola eginez gozatzeari aparteko garrantzia ematen diozula entzutea deigarria ere egiten da.

Baliteke, baina guretzat ezinbestekoa da. Garrantzitsuena hori da, eta emaitza onak lortzeko ere ezinbestekoa da.

**Garai batean, lehenengo aukera zineten gazte askorentzat eta eskubaloia bigarren aukera. Gaur, ez dakit alderantzikoa ez ote den. Zenbat jende mugitzen duzue?**

Ez nuke esango hori horrela denik. Nesketan beharbada bai, baina bestela ez. 200 bat



neska-mutilekin ari gara gaur egun. Nesketan, egia da badaukagula arazo bat. Iaz sortu genuen estreinakoz futbol eskola, eta bi neskek eman zuten izena. Gaur, bakarrik jarraitzen du. Nik esango nuke Sanlok neska gehiago dituela mutilak baino, eta guri alde-rantzizkoa gertatzen zaigula.

**Nesken taldea ez duzuela behar beste zaindu kritikatu izan dizuete neskek eurek; ez dituzuela aintzat hartu, ez behintzat mutilak beste. Zer duzue esateko?**

Guk uste dugu mutilak beste mimatu ditugula. Neskekin gertatu zaiguna da taldea osatzeko arazoak izan ditugula beti. Denboraldia hastear zela gu oraindik taldea osatu ezinda ibili izan gara sarri, eta osatuta ere, justuan ibili gara beti. Eta jakina, denboraldia amaitzerako, hamaikakoa osatzeko zailtasunekin ibiltzen zen sarri entrenatzailea. Aurten, Kopa jokatzetik ere ez dute izan; ezin izan ditugu inskribitu, oso gutxi zeudelako jokatzeko.

**Nesken taldea desagertu izanak edo CD Elgoibarren jokalariek emakumezko gutxi egoteak, beraz, ez dauka zuen ustez zuzendari-tzak eskaintzen dien tratuekin zerikusirik.**

Ez; ezta gutxiago ere. Gertatzen zaiguna da ez daukagula oinarririk neskekin gauza askorik egiteko. Iaz, hamasei laguneko taldearekin hasi ginen, justu-justuarekin, eta lesioak eta ikasketak gorabehera, hamaika komeria izan genituen azkenerako. Atzetik ez badaukagu jenderik, ez baldin badaukagu nondik tiratu ordezkioak behar ditugunean, jai dago. Lan handia egin dugu nesken taldea mantentzeko, baina talde horrek berezko arazoak dauzka, mutilenek ez dituztenak. Neskek hala ulertuko ez badute ere, guk tratu berezia eman diegu beti, ordutegiak-eta euren aukeretara egokitzeko, azken batean bik huts egiten bazuten taldea bera jartzen zelako kolokan. Klubeko hirugarren taldeztat hartu izana leporatu izan digute, eta ez gaude ados, egin ahalak eta bi egin ditugulako talde horrek aurrera egin dezan, baina hamasei lagun bakarrik izateak dena zailtzen du.

**Kexu ziren, hala ere, Kopa irabazi zutenean ez zenietelako mutilak beste harrera egin. Zuzendu beharrik ikusten duzue?**

Izango dugu, behar bada, baina neskekin gertatzen dena da egiten dena eginda ere, euren lorpenek ez dutela mutilenek besteko oihartzunik, nesken futbol partidak ikustera ere oso jende gutxi etortzen delako.

**Zerk huts egin du Haundin, hamar urte Hirugarren Mailan egin ondoren maila galtzeko?**

Arrazoi askoren batura izan da. Batetik, Hirugarren Maila bera kategorian zaila da, eta aurrez ere bagenekien talde justuegiarekin hasien ginela gu. Bestetik, lesio asko izan ditugu. Sei-zazpi jokalariek ere lesionatu izan zaizkigu aldi berean, eta hori asko da. Gure aldean aurrekontu handia dute taldeekin lehiatzen gara, eta horrenbeste jokalarik min hartzen dutenean bereziki, asko igartzen da hori. Besteek badituzte baliabideak horri erantzuteko, baina guk ez. Gurea izango da Hirugarren Mailan jokalariek kobratzen ez duten talde bakarra, eta badaukigu hori zailtasun extra bat dela. Eta esandako horri guztiari, zorte txarra gehitu behar zaio, asko izan dugulako hortatik ere. Hala ere, liga amaitzeko bost partida falta zirenera arte hori ibili dira lehian, eta hori esan beharra dago. Espero dugu aurtengoa zerbait puntuala izatea.

**“Haundi jaitsi izana, hein batean, normaltzat ere hartu behar dugu”**

**Orain, maila bat beherago, zuek izan behar-ko zinatekete taldeko oilar, ezta?**

Hala beharko luke, baina hau futbola da eta ez dago ezer esaterik. Talde lehiakorra osatuko dugu berriro Hirugarren Mailara igotzeko. Uste dut talde polita daukagula eta gauzak itxuraz egiteko aukera izango dugula.

**Aitortu duzu pozik zaudetela harrobia ondo ari delako. Zuen erronka beti izan da Haundin ahalik eta etxeko jokalariek gehien izatea. Zenbat claude orain? Maila galtuta, erronka hori betetzea errazagoa da gaur?**

Bai, erronka hori da. Gaur bi bakarrik dira elgoibartarrak, baina kopuru hori handitzea da gure asmoa. Jubeniletan-eta jende asko eta ona daukagu, baina oraindik urte batzuk falta zaizkie horiek lehenengo taldera igotzeko. Guk itxaropena badaukagu horietako askorengan, baina denbora behar da. Bide zuzenean goaz, hala ere, eta garbi esan dezakegu bi-hiru urtean etxeko jokalariek gazte askok

izango dutela aukera igotzeko.

**Datorren denboraldira begira aldaketarik izango da?**

Bai. Erdiek laga egingo dute, baina hala ere, taldearen bizkarrezurrari eutsiko diogu.

**Zeintzuk izango ditu aurkari zailenak?**

Denboraldi honetan goian ibili diren hiru-lau badaude, baina hori sekula ezin da jakin. Ez dugu lar ezagutzen Ohorezko Preferente maila, baina Hirugarren Mailaren aldean aldatokorra da hau, mugimendu handiagokoa, eta zaila zait horri erantzutea.

**Zein izan da Preferente mailako taldea jaiste-ko arrazoiak?**

Talde berri bati dagozkionak. Orain hiru bat urte izan genuen preferente mailako talde sendo bat, baina askok laga egin zuten, besteak beste itxita ikusten zutelako gorako bidea, eta talde berriarekin hasi ginen lanean. Bagenekien talde berria izanda ez genuela erraza izango, baina hala ere, ez genuen uste jaitziko ginenik. Jokalariek gazteak dira, gehienak 23 urtez azpikoak eta bakarren batzuk, jubenilak. Ikasketak direla-eta, sarri arazoak izan dituzte entrenamenduetara agetzeko eta hori bada traba bat. Sei-zazpi elkartzen ziren entrenatzeko eta egun bakarrean entrenatu zitezkeen serio, barixakuan.

**Zeintzuk dira CD Elgoibarren erronkak datorren denboraldirako?**

Talde lehiakorrek osatzea eta orain maila galdu duten horiek berriro igotzea. Eta horri lotuta, lehen esandakoa. Harrobiarekin lanean jarraitzea eta Haundira gero eta elgoibartar gehiago igotzea, era horretan bakarrik lortuko dugulako Mintxetara jende gehiago igotzea. Badakigu hori lortuta ere, ezingo dugula leku itxi batera beste jende eraman, hona etortzea, eta batez ere neguan, gogorra delako, baina nahiko genuke zaleen babes hori sentitu, etxean jokatzea berezia izatea.

**Kontuan hartuta lehen esan duzuen, alegia harrobiko on horiek hiru bat urteko ibilia falta zaiela Haundira iristeko, zer egiteko asmoa duzue Mintxetara jendea erakartzeko? Ez al duzue pentsatu neguko arratsalde hotzetan taberna zabaltzea edo?**

Bai, sarri, baina taberna ez da gurea. Lehen, taberna gurea zen eta horretarako ez ezik diru-sarrerak handitzeko ere lagungarri zitzaizgun.

## 400 bat lagun batu ziren zapatuan, Sanloren denboraldi amaierako festan

Unai Arrieta omendu zuen klubak

J oan zen zapatuan egin zuen Sanlok denboraldi amaierako festa, eta 400 bat lagun batu ziren jaira. Atletismo taldekoek azken zapatuko ferian jarritako txosnan batu ziren guztiak, eta segidan, kalejira egin zuten Sanloko jokalariz osatutako trititilari taldearekin. Denak batera, Sigmako aparkalekurantz abiatu ziren, bazkaltzera. Postrearekin batera, omenaldiaren unea iritsi zen: eskubaloi jokalariz izateari utzi dio Unai Arrietak denboraldi amaieran, eta hura omendu zuen Sanlok. Unai Arrieta Elgoibarko eskubaloi taldean hasi zen jokatzeko, eta ordutik hona klubarekin izan duen harremana eskertu zioten. German Meabebasterretxeak idatzitako bertsoekin osatutako plaka eman zioten. Elgoibarko Udalak eta Federazioak ere Arrieta omentzeko baliatu zuen unea. Sanloko jokalariek kantatu zizkieten bertsoen ondoren hunkituta erantzun zuen Unai, esker oneko hitzekin. Ondoren, Sanloko talde guztietako jokalariek aipagarrienak saritu zituzten.



Unai Arrieta erdian, Igor Lizarralde eta Zigor Esnaolarekin.



### Bihar jokatuko da Mendaron Javier Ezenarro txirrindularitza proba

Ohi legez, jubenilen mailako Javier Ezenarro txirrindularitza lasterketa antolatu du biharko Mendaroko Txirrindulari Elkarteak. Arratsaldeko lauretan abiatuko dira txirrindulariak Kilimon etorbidetik eta 84 kilometro pasatxoko ibilbidea osatu beharko dute. Mendarotik Osintxuraino (Bergara) joango dira, eta buelta hori birritan egin ostean, bi aldiz igo beharko dute gero Kalbarioko gaina (Mutriku), Sasiolatik lehenengo eta Mutriku aldetik gero. Ondo bidean, 18:10 alderako iritsiko dira aurrenekoak helmugara, Mendaroko plaza ondora.

### Irailaren 20an jokatuko dute Elgoibarko Gau Krosa

Mintxeta atletismo taldeak jakinarazi du dagoeneko aurtengo Gau Krosa noiz jokatuko den: irailaren 20an. Partaideek zortzi kilometroko ibilbidea egin beharko dute herrian barrena korrika. Txip horia dutenek zortzi euro ordaindu beharko dituzte izena emateko, txipa alokatu nahi dutenek hamar euro, eta txipa erosi nahi dutenek, berriz, 27 euro. Lasterketa amaieran opariak zozketatuko dituzte partehartzailerik guztien artean. Informazio gehiagorako ondorengo webgunea kontsultatu daiteke: <http://www.kirolprobak.com/>

### Uztailaren 18an bukatuko da kirol argazki lehiaketan parte hartzeko epea

Kirol Patronatuak kirol argazkien lehiaketa antolatu du Ongarriren laguntzaz, eta interesatuek uztailaren 18ra arte izango dute parte hartzeko aukera. Kirolarekin zerikusia duten argazkiak bakarrik onartuko dira, eta partaide bakoitzak gehienez lau argazki aurkeztu ahal izango ditu. Erretratuak Olaizaga kiroldegian entregatu behar dira. Sari banaketa abuztuaren 22an egingo dute, 19:30ean Kultur Etxean, eta sarituek [edo haien ordezkariaren batek] egunean bertan jaso beharko dute saria, bestela baliogabetu egingo da.


# Sentsazio gazi-gozoekin itzuli dira Maiora eta Lariz mendiko lasterketen munduko txapelketatik

Kilometro bertikalen proban 5. egin zuen Maiorak, eta 26. Larizek

**M**aite Maiora eta Iñigo Lariz mendiko lasterketen munduko txapelketan izan ziren Chamonixen (Frantziako Alpeak) joan zen asteburuan. Barixakuan kilometro bertikalen munduko txapelketan hartu zuten parte biek. Iñigo Larizek gogo handia zeukan kilometro bertikalen munduko txapelketan lehiazteko, azken orduan jaso zuen-eta gonbidapena, Espainiako selekzioko arduradunak hautatuen zerrendatik kanpo laga eta gero. Gogoak gogo, ez zuen lasterketa ona egin eta sasoi betean joan bazen ere, uste zuena baino atzerago sailkatu zen, 26. postuan (39:07) hain justu ere, Kilian Jornet irabazlearengandik lau minutu eta 49 segundora.

Maite Maiorak, bestalde, bosgarren egin zuen kilometro bertikalean, eta garaipentzat hartu zuen bosgarren postu hori. Domekan maratoi distantziako munduko txapelketan lehiatu zen Maiora, eta seigarren postua lortu zuen.

Podiumetik gertu geratu da mendarorria bi probetan, baina sentsazio gozoak laga dizkio postu batek eta gaziak besteak. "Pozik" agertu da kilometro bertikalean lortutako bosgarren postuarekin, baina, maratoian egindako seigarren postuarekin ez dago gustura. Postua txarra ez izan arren, beretzako "oso txarra" izan dela adierazi du.



## Markel Aranberrik irabazi du 40-15 tenis txapelketa



Markel Aranberri debarrak irabazi du aurtengo 40-15 tenis txapelketa. Domekan jokatu zuen finala Azkoitiko Agustin Quintanaren kontra, eta bi set nahikoak izan zituen 19 urteko gazte debarrak Quintana mendean hartzeko. Partida parekatua izan zela adierazi dute antolatzaileek, baina 7-5 eta 6-3 izan zen azken emaitza Markel Aranberriren alde. Markel Estatu Batuetako unibertsitate batean ikasten ari da, teniseko beka batekin. Quintana, berriz, tenis irakaslea da, eta hainbat txapelketa irabazi ditu afizionatuetan.

20 lagunek hartu dute parte txapelketan. Alebinetan Unax Zulaika izan da onena, eta jubenetan Ales Esteban.

Asteburu honetan padel txapelketako finalak jokatu dira.

## Nesken pala txapelketako finala uztailaren 11n jokatuko dute

Nesken pala txapelketa azken txanpara iristear da. Datorren astean jokatuko dituzte finalerdiak, eta hilaren 11n izango da final nagusia. Guztira 23 bikotek hartu dute parte.



**LAN ESKAINTZAK**

**ESKAERA**

- Emakumea lan bila. ☎ 632 836 130
- Emakumea umeak edo adinekoak zaintzeko edo garbiketeta lanak egiteko prest. ☎ 680 808 125
- Emakumea lan bila. Zortzi urtez egin dut lan adinekoak zaintzen. ☎ 637 966 749
- Emakumea eskaintzen da lanerako. Sukalde laguntzaile izateko, nagusiak zaintzeko edo lanak egiteko prest. ☎ 633 116 570
- Elgoibarko emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ 609 792 835
- Gizonezkoa eskaintzen da baserriko lanerako. Mahatsa batzen eta kontserba lanetan esperientzia. ☎ 677 866 495 / 602 473 663
- Emakumea eskaintzen da sukalde laguntzaile edo garbitzaile lanerako, tabernan edo hotelean lan egiteko, etxeko lanerako edo adinekoak zaintzeko. ☎ 678 292 120 / 602 473 663
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketeta egiteko. Orduka. Banaketa lanak egiten esperientzia daukat. ☎ 688 801 061 / 600 202 516
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. ☎ 603 237 932
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Geriatria laguntzaile ikasketak ditu. ☎ 646 931 162
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Etxean zein ospitalean. Gaeuz. Autoa eta gidabaimena ditut. ☎ 600 005 160
- Emakumea eskaintzen da garbiketeta egiteko, erro-pak plantatzeko edo adinekoak zaintzeko. Egunez. ☎ 648 063 061
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎ 626 052 165

- Emakumea lanerako prest: sukaldari laguntzaile edo adinekoak zaintzen egingo nuke lan. ☎ 606 354 982

**ESKAITZA**

- Asteburuetarako zerbitzaria behar du Mahats ardan-degiak. CVA entregatu behar da tabernan, Kalegoen plazan. ☎ 943 743 089
- Sukaldari laguntzailea behar da asteburuetarako. CVA Gautxo tabernan utzi behar da.

**ETXEBIZITZAK**

- Bi logelako etxea alokatzen dut Madalan. Eguzkitsua, igogailuarekin. ☎ 652 716 724
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 631 203 287
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 622 037 598
- Pisua hartuko nuke alokairuan, ahal dela, hiru logelatakoa. Jabearekin harreman zuzena izatea eskertuko nuke. ☎ 671 289 584
- Emakume batek etxea hartuko luke alokairuan, ahal bada hiru logelatakoa. ☎ 603 237 932

**GARAJEAK**

- Garaje marraduna alokatzen dut Santa Ana kalean. ☎ 660 841 767
- Garaje itxia salgai Lekuederren. 3. solairuan. Jausoron garajea salgai edo alokairuan. ☎ 652 727 631

**LOKALAK**


- Lokal komertziala alokatzen dut. Biltegi edo gazteen-tzako lokal moduan erabiltzeko egokia. Bi lokal batuta, 120m2 eta bi komun. ☎ 649 446 716 (Loli)

**PARTIKULARRAK**


- Ingelesko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. ☎ 680 319 002

**BESTELAKOAK**


- Katakumeak oparitzen ditut. Egoera onean eta ondo elkatuta. ☎ 648 513 757



- Hiru metroko sofa bat salgai. Chaiselong-arekin eta arkoiarekin. Beltza. 600 euro. ☎ 662 107 700 (Nerea)
- Katakumeak oparitzen ditut. ☎ 667 625 705



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
 ☎ 943 743 140 - [rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)




**Duela bi urte etxebizitza bat erosi genuen bikotekideak eta biok eta 29 urtean itzultzeko mailegua eskatu genuen. Harremana etetea erabaki dugu orain, baina, eta etxearekin neu gelditzea, nere neska-laguna izandakoak bere partea salduta. Arazoa da, baina, etxea erosi genuenetik hona berak halako hiru jartzen egon naizela ni eta ez dakidala etxearen balioaren zein parte ematera nagoen derrigortuta eta ezta jarraitu behar ditudan tramiteak zeintzuk diren ere.**

Salerosketako eskritura begiratu beharko genuke, etxea zein portzentajetan hartu zenuten jakiteko. Demagun erdibana hartu zenutela etxea, baina zu diru gehiago jartzen egon zarela urte guzti hauetan. Bada, kasu horretan, aukera daukazu zuk jarri duzun aparteko diru hori eskatzeko. Etxea zeinentzat izango den adostea garrantzitsua da. Kasu honetan, eta erdibana erosi bazenute, zure bikotekideak etxearen %50a saldu beharko dizu eta zuk ordaindu, jakina. Etxea zuk hartzen baldin baduzu, zuk egin beharko diozu aurre maileguari. Eta hori da mailegua eskatzeko bion izenean zabaldu zenuten kontua aztertzeke unea. Zure neska-laguna izandako horri etxeak gaur balio duenaren erdia ordaindu beharko diozu, beti ere zorretan daukazuen maileguaren parte horren erdia eta zuk aparte jarri zenuen diru kopuru hori eta hari dagozkion interesak deskontatuta. Eskritura gastuak, erregistroak, ondasunen eskualdatze zerga, eta gestioak egiteagatik gainbalioaren udal-zerga ordaintzea, berriz, zeuri dagokizu.

**GOMENDIOA: Banketxearekin hitz egin beharko duzu eta etxebizitza zeuk hartuko duzula jakinarazi. Banketxearen oniritzia duzunean, notaritzara joan eta salerosketa eskritura sinatu beharko duzu, eta maileguaren subrogazioa eskatu.**

**ROSA Mª PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



Creación de un Colegio de Administradores de Honor. **Real Decreto 1424/2007** de 29 de Septiembre. Ley 1/2002 de 11 de Enero. **Administradores de Honor**



• Zorionak, **Iker**, hilaren 9an 7 urte beteko dituzulako. Muxu asko etxekoen, eta bereziki, Ane eta Mirenen partez.



• Zorionak, **Maddi**, gaur 6 urte egin dituzulako. Ondo pasa, eta txokomarrubizko muxu bat etxekoen, eta bereziki, Aneren partez.



• Zorionak, **Unai**, ekainaren 29an 5 urte egin dituzulako. Besarkada handi bat eta muxutxu asko, etxeko guztion partez.




• Zorionak, **Nora**, zure zazpigarren urtebetetzean. Patxo handi bat, etxeko guztion partez.



• Zorionak, **Saioa**, uztailaren 7an 4 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta ahizpa Iraxeren partez.



• Zorionak, **Ifigo eta Miryam!** Ondo pasatu zuen ezkontza egunean. Familiakoek.



• Zorionak, **Markel**, herenegun 7 urte egin zenituelako. Patxo bat, etxekoen, eta bereziki, Jon, Jakes, Elene eta Paularen partez.



• Zorionak, **bihote**, eta egun ona pasa! Bihotzez, koadrilakoek. Arostei, gogoratu: "Gaur ez da lorik egingo!".



• Zorionak, **tio Ifigo eta tia Mirian!** Bixar ondo pasatuko dogu zuen ezkontzan, baiña ezkonbidaittik erregaluak ekarri. Julen, Jon eta Duna.



• Zorionak, **bikote!** Iritsi da eguna eta ondo pasa, guk ere halaxe egingo dugu-eta! Familiakoek, koadrilakoek eta lagunek.





• Zorionak, **Ane!** Azkenean heldu da zure bederatzigarren urtebetetzea. Ondo pasa. Opari asko merezi dituzu! Muxu. MZ.



• Zorionak, **June**, asteazkenean gure printzesak 4 urte egin zituen. Patxo potolo bat etxekoen, eta bereziki, Luken, Danel eta Itxasoren partez.




• Zorionak, **Mikel eta Jon!** Bihar eta astelehenen 2 eta 5 urte beteko dituzuelako. Muxu asko, etxekoen partez.

Uztailaren 14tik 18ra  
koadrilen arteko III. olinpiar jokoak  
egingo ditugu gaztelekuan.  
Izenemateko epea, zabalik.

Uztailak 9an Mintxetako  
igerilekuetara irteera.  
Izenemateak ludotekan,  
emailaz edo bezpera arte  
656 740 793 telefonora deituta.



## 4 barixakua

### Bideo forum

21:30 'La memoria de los peces'

Haizea emakume taldeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

### Musika

23:00 Kontzertua

Sinuosek antolatuta, *The fugitives* taldearen kontzertua. Kultur Etxeko sotoan.

## 5 zapatua

### Musika

15:00 Elgoibar Dance Festival  
Kida Events taldeak antolatuta, musika elektronikoaren jaia egingo dute, Albitzuriko industrigunean.

### Ɖailazoak

19:00 Piritx eta Porrotx  
Mendaroko Ikastolan.

## 7 astelehena

### Aisiladia

10:30 San Fermin Txiki  
Atxutxiamaiak antolatuta, San Bartolome eta Errosario kaleetan zehar.

### San Fermin

8:00 Entzierroak zuzenean  
San Fermin jaietako entzierroak eskainiko dituzte, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 11 barixakua

### Kirola

22:00 Ehunmilak  
Ultratrail lasterketari ongi-etorria egingo diete Azkaraten.

## BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

## GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
4 Garitaonandia	Astelehenetik igandera  Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)
5 Etxeberria		
6 Etxeberria		
7 Garitaonandia		
8 Yudego		
9 Zabaleta		
10 Barrenetxea		
11 Ibañez		
12 Garitaonandia		
13 Garitaonandia		
14 Etxeberria		
15 Yudego		
16 Yudego		
17 Zabaleta		
18 Barrenetxea		
19 Ibañez		

\* Larialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

**Fernandez** Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

**Ibañez** Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

**Zabaleta** Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

## AIRE LIBREKO ZINEA (KALEGOEN PLAZAN)

«Gravity» 4, barixakua: 22:30

«Gru 2» 5, zapatua: 22:30

## I. URTEURRENA



## MARITXU ANDION ERRASTI

*Beti izango zaitugu gure bihotzean*

2013ko uztailaren 6an hil zen, 88 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,

**zapatuan, uztailak 12, arratsaldeko 19:00etan**

Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.

Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



# ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



**INFORMA ZAITEZ! AUTOKO AZTERKETA TEORIKOA 17 URTEREKIN!  
IKASTARO TRINKOAK!**



## ORDUTEGIA

09:45etatik-12:15era

15:00etatik-20:30era

**5 EGUNEKO TEORIKAKO  
IKASTARO TRINKOAK**

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelerazko klaseak
- Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela



## OSASUN GIDA



### OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:  
9:30-13:00  
16:30-20:00

San Bartolome, 10- Elgoibar  
Tel: 943 743 734

183\12

UZURI

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:  
9:30-13:00 / 16:30-20:00  
San Frantzisko, 21

Elgoibar - Tel: 943 740 359

### HORTZ KLINIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre enparantza,  
5 behea - Elgoibar  
Tel: 943 530 053  
lekueder@infomed.es

### OTORRINOLARINGOLOGIA

183\12

UZURI

- Entzumen protesia
- **BERRIAI**
- Tapoiak neurria (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:  
9:30-13:00/ 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel: 943 740 359

### FISIOTERAPIA

271\12

AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 531 953  
Tel.: 669 565 745

177\12

fisio&más

Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea

- Esku-terapia.
- E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).

- Mesoterapia homeopati-koa:
- + Traumatologia.
- + Estetika (zelulitisa, es-triak)

Osasunerako ariketa agin-  
dua  
(Diabetes, osteoporosis,  
hipertensio arteriala)

Entrenamendu gidatua

Pilates makinak  
(erabilitazioa)  
3 pertsona gehien.

Txirindulariaren biomekani-  
ka (kalak, ergonomia bizikle-  
tan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.  
Tel.: 943 740 191  
667 953 628

# TXIKI EGUNEKO BAZKARIA

## ELGOIBARKO IZARRAREKIN

Txarangaren kalejira amaitu ondoren, 17:00etan, Sigmako aparkalekuan

### MENUA:

- Patatak errioxar erara
- Oilasko-izter errea osagarriekin
- Bizkotxo bustia esne-gainarekin

Izenematea **BARREN** astekarian edo  
Internet bidez egin behar da  
([www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net))

Izena emateko azken eguna: uztailaren 18a.

20 €

18 €

Elgoibarko  
Izarrako  
bazkideek

## TXIKI EGUNERAKO KAMISETAK SALGAI!

BARRENen bulegoan

10€

(Bazkideek 9€)



# Txikixan haundi

  
Txikixan haundi



ELGOIBARKO IZARRA  
Bazkideetako topagunea